

REINA SOFÍA MUSEOAREN IKERKETA BEKEN DEIALDIA 2016

Centro de Arte Reina Sofía museo nazionalak ikerketarako hiru laguntza deitu ditu, Bildumak eta Erakusketak sailetan, hurrenez hurren.

Hautagaiak:

Deialdiaren I. eranskinean laguntza bakoitzerako betekizun zehatzak zehazten dira, eta betekizun horiek betetzen dituzten pertsonak izan daitezke hautagai.

Motak:

Bildumak Saileko bekari honako espezializazio hau dagokio: "Espainiako argazki funtsen eta argazkilaritzaren ikerketa, 1940 eta 1975 urteen artean". Bestalde, Erakusketak Saileko bekek nazioko eta nazioarteko arte garaikidea izango dute aztergai, museoan aldi baterako erakusketak antolatzeko. Eskatzaile bakoitzak eskaera bakarra aurkeztu ahalko du.

Iraupena:

Beken iraupena 10 hilabetekoa izango da, 2016ko martxoaren 1etik abenduaren 31ra bitartekoa. Beka bakoitzak 20.000 euro gordin izango ditu.

Epea:

Eskaerak deialdiaren [oinarrietan](#) jasotako inprimakiekin bat etorri egin behar dira, eta **2015eko azaroaren 16a baino lehen** aurkeztu, Centro de Arte Reina Sofía museo nazionalerako erregistro orokorrean (Santa Isabel kalea, 52, 28012 Madril). Halaber, 30/1992 Legearen 38.4 artikulua aurreikusitako edozein bitarteko erabilita helaraz daitezke.

Harremanetarako:

Telefonoz: 91 774 1000 (Informazio orokorra).

Informazio gehiago: <http://www.museoreinasofia.es/museo/empleo-formacion>